

Eta apartatzen banaute?

Nerea Ibarzabal Salegi



Baina lagun taldean mina ere hartzen dugu sarri.
Taldean norbait baztertzeko modu sotil asko dago.
Eta zer egiten dugu bazterketaren ikusle garenean?

Doinua: Seme ezarri bainak **Hamarreko txikia**

- 1** Lekua da parkea ordua, **17:30** gozokiak erosi bankutan **eseri** astebururo mila par eta **komeri** nahiz kuadrilla jatorra garella **ageri** gaur ere ez diogu hots egin **Leireri**.
- 2** Leire da beti lotsaz mutu **dagoena** gainera ez da Lurren lagunik **onena...** baina gehiegitxo da ez **deitzearena** isilik daude Markel, Xan eta **Elena...** bakarra al naiz hori pentsatzen **duena?**
- 3** “Ez gure ostikaden, ezta gure **hitzen** bidez ez dugu Leire inoiz ere **mintzen** ez mehatxu, ez irain, ez “tonta”, ez **“gizen”** beste gabe, ez gara berekin **ibiltzen”** pentsatu arren, ez naiz hobeto **sentitzen**.
- 4** Leialtasuna dugu kuadrillako **tratu** eurekin ibil nadin zapatuz **zapatu**. Leire ere gugana nahiko nuke **batu** ahalegintxo bat egin eta **gerturatu...** baina ez dut nahi bere lekuan **bukatu**.
- 5** Taldearen aurrean kikildu ohi **gara** baina zelan baretu barruko **bulkada?** Mezu bat bidaliko diot gero, **hara** ze, zintzo jokatzea dakigun **erara** ausartak izateko beste modu **bat da**.
- 6** -Kaixo, Leire, zer moduz?
-Ei, Nerea, **hola!**
-Aizu, etzi al dugu mateko **kontrola?**
-Bai, ez dut gaindituko...
-Nik ez dakit **nola...**
Ulertuko al du hitzei kenduta **oskola** barkamena eskatzen ari **natzaiola**.